

ZUREZKO ARKITEKTURA EUSKAL HERRIAN

Gizakiak, gizaki denetik, naturak eman dizkion eskaintzetatik aukeratu eta landu behar izan du beti babes bere tribua-
rentzat, bere familiarentzat e.a. Hasieran eta nomadismo aroan,
mendiak bere kobazuloetan eskaintzen dizkio estalguneak.
Gero, nekazaritzaren sorrerarekin batera, hainbeste mendeeta-
ko nomadismotik bizimolde sedentario baterako pausoa ematen du eta horrekin batera lehenbiziko herri kontzeptua, alegia, kokapen konkretu baten populazioa antolatzen du. Eta “herri” hau beretzat babesleku eta asentamendu iraunkor gertatzen da. Eta asentamendu honetan sortzen da lehenengo arkitektura primitibo bat.

Harrezkero gizakiak bere bizitza inguratzeko, jasotzen ditu eraikin egokiak eta horrenbestez sortzen da arkitektura, nahiz zibila nahiz erlijiosoak. Eta arkitektura bere bilakaeraren fase guztietan gure herriaren ingurune geografiko eta historikoaren isla gertatzen da.

Horretarako erabili zituen materialak ezinbestean eskura zitu-
enak izan ziren: harria oinarri dela, zurak izan du protagonismo-
rik garrantzitsuenetakoa, biak baitira naturak eskaintzen dizkigun materialik oparoenak.

Eta historian zehar gizakiaren izaerari jarraiki, erlijioaren arkitekturak baina baita arkitektura zibilak ere, sekulako artela-

nak eman dizkigu, eta haien zurezko habeak .gure lurraren zutabeak dira.

Hala aurkitu dezakegu zurgintza arte bihurtuta, denborak aurrrera egin ahala beren garaiko kontalari mutu, beren iraganeko etorkizuneko enbaxadore, bihurtu diren eraikuntzak jasoz.


Hori dela eta, monografia honetan gure herrian zehar ibilaldi bat egin nahi izan dut eta eredu adierazgarri batzuk bildu, gure zurezko artearen mota desberdinen xarma eta aberastasuna aurkezteko.

Juan Mari Arrizabalaga




1. ADUNAKO ELIZ ATAURREA (GIPUZKOA)

Eliza nagusia, Jasokundeko Andre Mariarena, XVI. mendekoa da. Baina ataurre gotikoak bere ojiba-arkuarekin, arkibolta eta guziti, lehenago egongo zen eliza bat adierazten digu. Ataurrea landu gabeko zurezko eraikinaren gainean teilatu batekin estalita agertzen zaigu.




2. JAUREGI ZAHARRA. DONAMARIA (NAFARROA)

Donamariako Dorrea edo "Obolezko Etxea" XV. mendetik aurrera iparraldeko baran hezeetako eraikin zabarren nortasunaren isla soil baina dotore altxatzen da. Funtsean gotikoa da eta inguruko materialez eraikia, alegia, barriz eta zurez. Zura da goi aldeko benetako protagonista. Egurrezko egitura "kadalso" horrek, beberago dauden gezi-leihoekin batera, garai batean zuten defentsa-erabilpena dakarkigute gogora.




3. URIBARRIKO SANTA MARIA ELIZA. DURANGO (BIZKAIA)

Eliza hau Euskal Herriko erlijio-monumentu nabarmenetako bat da, hala arkitektura mailako kalitateagatik nola bere barnean gordetzen duen ondare aberatsagatik. Hego aldeko arkupea berri zurgintzazko lan aparta da. Izatez plaza publiko bikaina eta estalpeko azoka da, Durangoko biztanleen bizimoduaren berezko nortasuna lortu zuena. 1678 eta 1681 bitartean eraiki zen, baina 1937ko bonbardaketaren ondoren berreraiki behar izan zen.




4. ZUREZKO ARKITEKTURA. AURRIA

Herri baten ondarearen inbentarioa egitean eraikuntzak zenbatzen diren arren, zenbat eta aberatsagoak izan orduan bohe, ezin dezakegu abantz kultur nortasuna eraikuntzetan bezain ongi islatzen dela aurrietan, askotan azaltzen baitzaizkigu eraiki zituen kulturaren eta erabili zituzten jendeen barne muinak eta arima aldarrika. Balio dezatela zur-aurri hauek zurezko etxolaren omenaldi gisa, Erdi Aroko nekazarien lehenengo etxea izan baitzen XV. mendera arte.




5. ANTIGUAKO ANDRA MARI ELIZA. ZUMARRAGA (GIPUZKOA)

Zelantzarik gabe, XVI. mendeko zuraje agerikoen eraikinik adierazgarriena da Euskal Herrian, bai barizkizko habeteriaren diseinu kompleksuagatik, bai apaindurazko tailen oparotasunagatik. Funtsean, arotzeria suabiarraren Erdi Aroko tekniken eragina boberen nabarmentzen duen egituretariko bat da. Egiturearen sasoi berekoa da U itxurazko oin-planoko koru zabala, oboltza mibizatutako karela duelarik, eta horretan sarraila-begidun sareta-ormatalak ikus daitezke.




6. ITURRETAKO SAN KRISTOBAL. BASELIZA. MARKINA-XEMEIN (BIZKAIA)

XVI. mendeko eraikina. Ageriko arotzia dauka eta barnean bi zuin eta hiru habearietan taxututa dago. Aurrealdeko horma artearen gainaldearen egitura nabarmen da gotiko estilokoa, altuera mailakatua duten habearteekin. Egitura honen euskarriak barizkizko lau paldo sendo dira, ganga nagusiaren bertizeetan daudenak, alegia. Zainen ebakidura zorrotza eta profila kurboa da. Diseinua, bada, oso kultura da, nabiz eta baliabideak eta bitartekoak arruntak eta xebeak izan.



/ ILLOROKO SANTA MARINA BASELIZA. MARKINA-XEMEIN (BIZKAIA)

Inguru gorde batean dago, oreka ezegonkorrean mendi-mazela malkartsu baten gainean. Barruan XVI. mendeko zuraje-egitura bitxiak ditu. Aurrealdeari erantsila, zutabeen gainean, garai batean herrialdean bain ugariak izan ziren zurezko kanpandorre horietako bat dago. Bizkaian geratzen den bakarra. 1618an Domingo de Gandiagak armatu zuen eta 300 erreal kostatu zen.




8. AGARREKO GARAIA. BERGARA (GIPUZKOA)

Gipuzkoan gelditzen den jatorrizko garai bakarra da. XVI. mendearen lehen erdian jaso. Tamaina handi samarrekoa, 50 metro koadrokoa, eta teilape guztia kontuan hartuz gero 100 metro koadrokoa. Ez du iltze bat bera ere; obolak -denak baritz egurrezkoak-, matxinbrazko sistema batez eta ziriz daude josiak. Laboreak -artoa, garia, oloa...- gordetzeko izaten ziren eraikuntza hauek, lurretik altxata zeudenez, saguek, arratoiek eta ezin baitzuten sartu.




9. ILLOROKO SANTA MARINA BASELIZA. MARKINA-XEMEIN (BIZKAIA)

Santa Mañeren ermita historia oroitarazteko abalmenik handiena duen eraikinetako bat da Bizkaiko baserri-arkitekturaren. Haritezko zutabez egindako euste-eskeletoa dauka landu gabeko hormen artean. Zutabe boriek eusten diete polikromatu gabeko zurez egindako terzelete-gangari (aldarearen gainean armatua) eta obol mibizatuekiko koru-zoriari.



10. EZPELETAKO ELIZA (LAPURDI)

XVI-XVII. mendetako eliza zoragarria, kanpandorre aipagarri batekin. Beste berezitasun bat atzeko eta alboetako bormetan zehar itsatsita biru lerrotan doazen zurezko galeriak dira, karelak landuak eta torneatuak dituztelarik. Bertan gizonezkoak jartzen ziren, bebean habeartean emakumeak kokatzen ziren bitartean. Adituek teoria ezberdinak planteatzen dituzte galeria horien zergatia oinarritzeko: 1. XVII. mendeko populazioaren bazkundera. 2. Frantzia bego aldeko erromes erromanikotako elizen oroitzapena. 3. Arrazoi liturgikoa: gizonezkoen abotsak galerietan elkartzeko eta emakumeenak habeartean.




11. SORALUZETIKO ELIZAKO ATATURREA (GIPUZKOA)

Zurezko estruktura eta bere apaingarriak direla medio, Euskal arte berrikoaren eredu bikaina da 1666. urtean eraikitako elizpe hau. Pedro de Aldazabal zurginak eraiki zuen eta diseinua, berriz, Antonio de Anziondo maisuarena da. Zura lantzeko moduan oraindik ere herri-artearen oso present darraiten errenazimenduko motiboak barroko garaioekin nabasten dira. Eliz ataria laurogeigarreneko hamarkadan goitik behera berrizatu zuten.




12. IGARTUBEITI BASERRIA. EZKIO-ITSASO (GIPUZKOA)

Igartubeiti baserriak beste edozeinek baino hobeki islatzen du euskal baserriaren Urrezko Aroa esan diezaiokeguna. Baserria XVII. mendearen basieran (1630), bere garairik gorenean, zabaldu eta eraberritu egin zen, bizimodu eta lan mota berrietara egokitzeko. Baserriak jatorrizko zurezko egitura oso ongi kontserbaturik dauka eta hau dela-eta, sagardorako dolarea ere kontuan hartuta, Euskal Herriko baserririk interesgarrienetako bat dela esan dezakegu.




13. ITURRETAKO SAN KRISTOBAL BASELIZA. MARKINA-XEMEIN (BIZKAIA).

(ca. 1530).- Baliabide apalekin egindako ermita honek baserri eta itsasontzien egitura uztartzen ditu. Berau eraikitzeko ebun haritz bikain bota ziren haizkora eta zeioaz eta, beste ermita asko bezala, garai batean auzuneko bilgune garrantzitsua izan zen.




14. ERTZILLAKO GARAIA. IURRETA. BIZKAIA.

“Garaixearen” jatorrizko eginkizuna zekalearen eta artatxikiaren baziak gordetzea zen, baita sagarrak, gaztainak, intxaurrek eta beste fruitu batzuk gordetzea ere. 1650. urtera arte baserri guztien eranskin bat zen, eta 5 eta 20 metro arteko tartean ezartzen zen baserriaren aurrean, eta oso gutxitan alboetan. 1650 1775 urte bitartean galdu zen baserrietako eranskin hauek eraikitzeko oitura, artoa sartu zenean garaietako aletegiak eta baserriak berak txiki geratu baitziren.




15. PAGADIA.

Ezin ukatu naturak eskaintzen dizkigun eraikinik ederrenetako batzuk gure basoak direnik. Urtean zehar bere itxura aldatzen duten enborrezko egitura, ostu berdez taxututako kupula, adarrak bere mugikortasunaz baliatuz zabaltzen dituzten leihoak, ban barruan argia eta itzala aldizka tartekatuz sortzen duten argiteria... Hauen guztien elkarketak sortzen digu elizarik ederrena adinako tenplu zoragarria. Eta gainera gure eraikinetarako zura eskaintzen digu.




16. ARANBURU ZAHAR BASERRIA. AIA. GIPUZKOA.

XVII. mendea izan zen armazoia duten baserrien garairik oparoena eta sasoi bonetan, bain zuzen ere, berregin ziren baserririk sendoenetako batzuk, Aranburu zahar baserria esate baterako. Izan ere, eraikin mota hau baserri-mota ugarienetako bat da. Baserri hauetan ikus daitekeen zurezko laxken muntaiak eutsi egiten dio baserriari. Familia eraikinaren eskuinaldean bizi zen eta ukuluak eta lastotegiak hartzen zuen baserriaren barruko espazioaren zatirik handiena.




17. YSIOS UPATEGIAK. GUARDIA. ÁRABA.

(1998) Arkitektoa: Santiago Calatrava. Ysios upategiak zoragarri egokitu zaizkio Guardiako orografia gorabeberatsu bezain apartekoari, Kantabriako muinoen azpian. Hormek urmaeletan zirriborroak sortzen dituzte: barrika bandi-bandi batzuk dirudite zintzilik baleude bezala airean, mabats itsasoa dirudien airean. Zur eta aluminiozko ubinek balakoan sentipen bitxia sorrarazten dute.




18. ZUHAIKAZ ZERURANTZ.

Eliza gotiko ederrenaren zutabe bukaezinen antzera luzatzen dira zerurantz gure zukaitzak, Natura arkitektoak eraikitako tenplu zoragarri bonetan.



19. IRUNBEINE BASERRIAREN GARAIA. MARKINA. BIZKAIA.

Gomez Tabernak dioenez, garaia zurez eraikitzeko teknika indoeuropar aurreko korronteekin batera iritsi zen penintsulara... Iberiar penintsulako gainerako garaien familia berekoa, euskal garatxe lur bonetako eraikuntza berezia da, bertako lurretan garatua, bere xebetasetan gure orubearen baldintza naturaletara egokitua.



20. FALUA ETA ESKOLA ONTZIA. BILBO.

*Euskal herriko basoak emandako zurarekin egindako zenbat itsasontzik ildaskatu ote dituzte mundu bonetako itsasoak!
Zenbat garraio, zenbat kainoi, zenbat bidaiari, zenbat kortsario eta zenbat pirata, zenbat urre eta aberastasun garraiatu
ote itsasontzi bihurtutako gure basoetako zubaitzak. Almadietatik hasita, faluarik dotorenera gure egurrak ibai eta
itsasoetan zehar egin dituen bidaiak ikertu beharrekoak direla deritzat.*